



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA  
2016/03/08

## **Batzar Nagusiek Karpinen jarraipeneko mahaia aktibetea eskatu dabe, plan "bideragarria eta iraunkorra" definitzeko**

Bizkaiko Batzar Nagusiek beste bultzada bat emon deutsie Karpineko animalien parkeari. Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako batzordeak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben arauz besteko proposamena onartu dau gaur, Enkarterriko Mankomunidadea jaube dan parkearen jardurea eta etorkizuna bermatuko dauen proiektua prestau daiten.

Jeltzaleek eta sozialistek defendidu daben ekimenean oinarrituta, Batzar Nagusiek “Karpinen jarraipenerako mahaia aktibau beharra adierazo dabe”, eta eskaria egin dabe, mahai horren inguruan “zehaztu eta ezarri daitezcan zentro horren ildo estrategikoak eta lanerako lerroak”, Karpin leku “bideragarria eta iraunkorra” izan daiten. Proposamen horrek EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeetako ordezkarien aldeko botoak eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen abstentzinoa jaso ditu.

Enkarterriko Mankomunidadea jaube eta arduradun dan zentro horrek irakaskuntzan eta hedapenean egiten dauen beharra “zalantzan jarri ezina” da, batzarretako talde guztiek autortu dabenez, eta euren ustez Karpin “eskualdeko ekonomiaren eta turismoaren elementu bultzatzailea” eta “enplegurako eta iraunkortasunerako” iturria da, eta horrez gain “behar pedagogiko garrantzitsua” egiten dau. PP taldeko bozeroaleak azpimarratu dauenez, fauna basatiaren Enkarterriko zentroa Bizkaian gehien bisitetan dan “hirugarren” instalazinoa da, “Guggenheim eta Arte Ederren museoen ostean”, “55 espeziatako 450 animalia” ditu eta “8.000 ikaslek” bisitetan dabe urtero.

Batzordeak onartu dauen ekimena aurkeztu daben taldeek –EAJ-PNV eta PSE-EE– adierazo dabenez, Foru Aldundiak “eginbehar garrantzitsua” dauka, baina “lehenengo plan estrategikoa” egin behar da jarraipeneko mahai horren barruan. Jarraipeneko mahai horretan Foru Aldundiak berak, Enkarterriko Mankomunidadeak (bere bederatzi udalakaz) eta barruti hori kudeetan dauen Iniciativas Ambientales enpresa pribaduak hartzen dabe parte. Beharrezkoa da parkearen kudeaketea “norantz bideratu behar dan” definitzera zuzendutako “etorkizuneko proiektua” prestetea, esan dau Alexia Castelo sozialistak.

Batzar Nagusietako oposizinoa ez da jeltzaleen eta sozialisten helburu horren kontra agertu, baina eskaria egin dau Aldundiak baliabide ekonomiko gehiago jarri daian parkean. Aldundiaren partaidetzea “gutziz beharrezkoa da”, esan dau Podemos Bizkaia Josean Elgezabalek, parkeko instalazinoak, “orokorrean, egoera txarrean” dagozalako. Podemos Bizkaia eta PP taldeek proposamen bi aurkeztu ditue, alkarlan “zuzenagoa” eskatzeko, baina proposamen horreek ez dira onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak kontra agertu diralako.

Alde batetik, talde morearen arauz besteko proposamenak eskaria egiten eutsan Bizkaiko Foru Aldundiari, jarraipeneko mahai horretan parte hartzeko eta Karpineko parkeko arduradunakaz “modu aktiboan” lankidetzan aritzeko. PP taldeak bere idazkia gehiago zehaztu dau, eta eskaria egin deutse Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ekonomia Ministerioari, legez kanpoko trafikotik datozen felino handiak hartzeko bertako instalazinoetan egin behar diran egokitzapenak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“alkarren artean finantza daiezan”. Hori “sarritan” eskatu dabe Gobernu zentraletik, Cites (Fauna eta Flora Basatiko Espezie Mehatxatuen Nazinoarteko Merkataritza) deritxon hitzarmenean oinarrituta.

Javier Ruiz PP taldeko bozeroalearen eretxiz, aukera hori lagungarria izango litzateke parkea hobeto ezagutzeko eta bisitari gehiago ekarteko, eta hori oso garrantzitsua da parkeak “bere burua finantzatea” gura bada. Kontuan izan behar da gaur egun hori egitea ezinezkoa dala ez dagoalako espezie horreek jasoteko instalazio aproposik. Hori dala eta, administrazio biei eskaria egin deute, Karpineko parkea atontzeko egin behar diran lanak “300.000 eurogaz” finantza daiezan.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK gogoratu dabenez, Aldundiak orain hainbat urtetik finantzeta dau parkea. María Presa jeltzaleak esan dauenez, Karrantzako animalien parkeak “323.975 euro” jaso ditu 2011tik “konponketarako, ezustekoetarako eta azpiegituretarako” Aldundiaren aldetik, eta baita zugatxak inauteko beste “13.000 euro” be. Eta hori guztia, Mankomunidadeak berak egindako ekarpenak kontuan hartu barik. Ekarpene horreek 50.000 euro baino gehiagokoak izan dira azken urteetan, traktore bat erosteko, eta konponketak, aseguruak eta aparkalekuan egin diran obrak ordaintzeko.

Laguntza horreek argi eta garbi erakusten dabe administrazioek eta Aldundiak, zehatzago esanez, “ez dabela Karpin bertan behera itzi”. Presak gogoratu dauenez, talde biek herritarren alegazioa jaso eben aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeetan, aurtun Karpin parkeari “25.000 eurogaz” laguntzeko, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako sailaren kontuen barruan. “Ez dakit asko ala gitxi dan. Hori da horretara bideratu eitekeana, baliabideak ez diralako muga bakoak”, esan dau.

PP taldeak felinoak jasoteko instalazioak finantzetako egin dauen eskariari jagokonez, Alexia Castelok (PSE-EE) esan dau Estaduaren eskumena danez, Ekonomiako Ministerioak berak hartu beharko leukela bere esku, gero parkeak mantentze-lanen gastuak hartu beharko leuketalako bere gain. Ganera, aukera hori ez litzateke bat etorriko Karpinek dauen eginbeharragaz, fauna “iberiarra” jasoteko eta berreskuratzeko zentro izateagaz, hain zuzen be. Hori dala eta, eskaria egin dau, jaubeek –Enkarterriko Mankomunidadeak– eta kudeetan dauen enpresak lehenengo parkeari emongo deusien “betebeharra definitu” daien. “Gauzak ordenan egin behar dira. Ezin dogu zulo baltz bihurtzen itzi”, gehitu dau Presak, jasotako laguntzak aitatu eta gero.

EH Bildu taldeak, bere aldetik, Foru Aldundia parkearen iraunkortasunean “gehiago inpliketea beharrezkoa” dala esan dau, baina inplikazio hori ez dala zertan laguntza ekonomikoa izan behar “derrigorrez”. Plan estrategiko hori egiteko orduan Aldundiaren inplikazio “handiagoa” eskatu dau.

## PP TALDEAK BATZARRETARA EKARRI DITUEN EKIMEN BI BAZTERTU DITU

Beste alde batetik, Irene Edesa batzordeko presidenteak, PP taldeak, Arturo Aldecoa batzordekideak aurkeztutako batzarretako ekimen biak baztertu egin dituala iragarri dau saioaren hasieran. Bat Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak agerraldia eskatzen ebana zan, Abantoko Euskadiko Meatzaritza Kultura eta Ingurumen Parkearen sorkuntzaren ganeko prebisinoak azaltzeko, eta bestea arauz besteko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

proposamena, Foru Aldundiari eskaria egiteko Lekeitioko Udalagaz batera, San Nikolas edo Garraitz deritxan ugarteko landaredia eta zugatzak berreskuratzeko plan bat atondu eta garatu” daian.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
08/03/2016

## **Las Juntas Generales piden activar la mesa de seguimiento del Karpin para definir un plan "viable y sostenible"**

El Parlamento de Bizkaia ha vuelto a dar un espaldarazo al parque de animales Karpin. La comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales ha aprobado hoy una proposición no de norma presentada por PNV y PSE-EE para que se idee un proyecto que garantice la actividad y el futuro del parque encartado propiedad de la Mancomunidad de Enkarterri.

En base a la iniciativa defendida por jeltzales y socialistas, las Juntas Generales “manifiestan la necesidad de que se active la mesa de seguimiento del Karpin” e instan a que sea en el seno de esta mesa donde “se definan y se establezcan las líneas estratégicas y las líneas de trabajo” de dicho centro, con el objetivo de que el Karpin sea un lugar “viable y sostenible”. Esta propuesta ha contado con el apoyo de los representantes de PNV, PSE-EE y PP, y la abstención de EH Bildu y Podemos Bizkaia.

La labor didáctica y divulgativa de este centro propiedad y responsabilidad de la Mancomunidad de Enkarterri es “innegable”, han reconocido todos los grupos junteros, que mantienen que el Karpin es un elemento “tractor de la economía y del turismo en la comarca” y fuente de “empleo y sostenibilidad”, además de realizar una “importante labor pedagógica”. El portavoz del PP ha destacado que el centro encartado de fauna silvestre es la “tercera” instalación más visitada de Bizkaia, “por detrás de los museos Guggenheim y Bellas Artes”, cuenta con “450 animales de 55 especies” y recibe anualmente la visita de “8.000 escolares”.

Los grupos proponentes de la iniciativa acordada por la Cámara-PNV y PSE-EE- han señalado que la Diputación tiene que jugar un “papel importante”, pero que “primero” debe confeccionarse un “plan estratégico” en el seno de esta mesa de seguimiento en la que participan la propia Institución foral, la Mancomunidad de Enkarterri (con sus nueve ayuntamientos), y la empresa privada Iniciativas Ambientales que gestiona el recinto. Es necesario elaborar un “proyecto de futuro” dirigido a definir “hacia dónde encaminar” la gestión del parque, ha especificado la socialista Alexia Castelo.

Por el contrario, la oposición en las Juntas Generales, que no se ha negado a esta pretensión de jeltzales y socialistas, ha demandado que la Diputación ponga más recursos económicos en el parque. La participación de la Diputación es “vital” según Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia, ya que las instalaciones del parque se encuentran “en general, en mal estado”. Sendas proposiciones de Podemos Bizkaia y PP, que finalmente no han salido adelante por el rechazo de PNV y PSE-EE, demandaban una colaboración “más directa”.

Por un lado, la proposición no de norma de la formación morada instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a participar en dicha mesa de seguimiento y a colaborar “de forma activa” con los responsables del parque del Karpin. Mientras, el PP concretaba en su escrito que la Institución foral y el Ministerio de Economía financiaran “conjuntamente” la adecuación de sus instalaciones para albergar a “grandes felinos” provenientes del tráfico ilegal, algo que han



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

solicitado “en varias ocasiones” desde el Gobierno central en base al convenio Cites (Comercio Internacional de Especies Amenazadas de Fauna y Flora Silvestre).

Para el portavoz del PP Javier Ruiz, esta posibilidad, que contribuiría a una mayor difusión y foco de atracción de visitantes, algo importante si se busca la “autofinanciación” del parque, se ve imposibilitada por la carencia de instalaciones adecuadas para acoger dichas especies. Por ello, han pedido que ambas administraciones pasen a financiar con “300.000 euros” la adaptación del Karpin.

PNV y PSE-EE han señalado que la Diputación ya financia el parque desde hace años. Según la jeltzale María Presa el parque de animales de Karrantza ha recibido, desde el año 2011, un total de “323.975 euros” en concepto de “reparaciones, imprevistos e infraestructuras” varias por parte de la Institución foral, más otros “13.000 euros” por la poda de árboles, sin contar las aportaciones de la propia Mancomunidad que sumaban más de 50.000 euros en los últimos años para la adquisición de un tractor, y el pago de reparaciones, seguros y obras en el aparcamiento.

Estas ayudas demuestran que las administraciones y, en concreto, la Diputación “no ha abandonado el Karpin”. Presa ha recordado que ambos grupos recogieron en sus enmiendas presupuestarias una alegación ciudadana para ayudar al centro con “25.000 euros” durante este año, dentro de las cuentas del área de Desarrollo Económico y Territorial. “No sé si es mucho o poco. Es lo que se podía destinar porque los recursos son finitos”, ha dicho.

En cuanto a la petición del PP para financiar instalaciones para felinos, Alexia Castelo (PSE-EE) ha pedido que, al ser esta una competencia del Estado, sea asumida por el propio Ministerio de Economía, ya que el parque tendría que hacer luego frente a los gastos de mantenimiento. Además, esta posibilidad chocaría con las atribuciones asumidas por el Karpin de servir de centro de recogida y recuperación de fauna “ibérica”. Por ello, han pedido que los propietarios –la Mancomunidad de Enkarterri- y la empresa gestora, deben “definir primero el destino” que le dan al parque. “Hay que poner orden. No podemos dejar que sea un agujero negro”, ha añadido Presa, después de enumerar las ayudas recibidas.

Por su parte, EH Bildu ha apuntado a la “necesidad” de que la Diputación se “involucre más” en la sostenibilidad del parque, que no tiene por qué ser “necesariamente” un apoyo económico. Han pedido “mayor” implicación foral a la hora de elaborar ese plan estratégico.

## EL PP RETIRA DOS INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Por otra parte, la presidenta de la comisión, Irene Edesa, ha anunciado al inicio de la sesión que el grupo juntero del PP ha retirado las dos iniciativas parlamentarias presentadas por su apoderado Arturo Aldecoa que debían sustanciarse. Se trataba de una comparecencia de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, para explicar las previsiones del departamento sobre la creación del parque cultural y ambiental de la minería de Abanto, y una proposición no de norma que venía a instar a la Diputación foral a colaborar con el Ayuntamiento de Lekeitio “en la preparación y desarrollo de un plan de reforestación y revegetación” de la isla de San Nicolás, en Lekeitio.